



Bezero ospetsuaren  
abentura

ARTHUR CONAN DOYLE



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

ARTHUR CONAN DOYLE

# Bezero ospetsuaren abentura

itzulpena:

Miren Bacigalupe García

zuzenketa:

Jokin Goti Ajuriagerra

maketazioa:

Enara Nazabal Gomez de Segura

"Orain ez du kalterik egingo", esan zuen Sherlock Holmes jaunak, hamar urtean hamargarrenez hurrengo kontakizuna argitaratzeko baimena eskatu nionean. Hala lortu nuen, azkenean, nire lagunaren ibilbideko unerik gorena, nolabait esateko, idatziz jasotzeko baimena.

Holmesek eta biok zaletasun berezia genuen bainu turkiarrerako. Lehortegiko nagikeria atseginean, zigarro bat erretzen genuen bitartean, beste inon baino gutxiago eta gizatiarrago aurkitu izan dut nik. Northumberland Avenueko establezimendu hartako goiko solairuan bazegoen bazter bakarti bat, bi etzaleku elkarren ondoan zituena; hantxe geunden etzanda 1902ko irailaren 3an, nire kontakizuna hasten den egunean. Galdegin nion ea zerbait gertatzen ari zen, eta erantzun gisa izara artetik atera zuen beso luze, mehe eta urduria; alboan zintzilik zuen berokiaren barruko poltsikotik gutun-azal bat atera zuen.

"Agian ergel petral eta handinahi baten kontua izango da; agian bizitzaren edo heriotzaren auzia", esan zuen oharra eman bitartean. "Mezu honek dioena baino ez dakit nik ere".

Carlton Clubetik zetorren, bezperako datarekin. Hauxe irakurri nuen:

Sir James Damerik bere agurrik adeitsuenak helarazten dizkio Sherlock Holmes jaunari, eta bihar arratsaldeko laurak eta erdietan bisita egingo dio. Sir Jamesek esan nahi du Holmes jaunarekin hitz egin nahi duen gaia oso delikatua eta, aldi berean, oso garrantzitsua dela.

Horregatik, Holmes jaunak elkarriketa hau onar dezan ahal duen guztia egingo duelakoan dago, eta Carlton Clubera telefonoz berretsiko diola espero du.

"Ez da esan beharrik berretsi dudala, Watson", esan zuen Holmesek papera itzuli nionean. "Badakizu zerbait Damery horri buruz?"

"Gizartean oso izen ezaguna dela baino ez".

"Bada, hori baino apur bat gehiago esan diezazuket. Egunkarietara iritsi behar ez duten auzi labainak konpontzen ospe handia du. Gogoan izango duzu, agian, Hammerforden testamentuaren auzian Sir George Lewisekin izan zituen negoziazioak. Munduko gizona da, diplomaziarako sena duena. Horregatik espero dut arrasto faltsua ez izatea eta benetan gure laguntza behar izatea".

"Gurea?"

"Bai, Watson, zuretzat ere bada gonbita, baldin eta etorri nahi baduzu".

"Ohore handia izango da".

"Orduan, badakizu: laurak eta erdi. Ordura arte, ahaztu dezagun kontua".

Garai hartan Queen Anne Streeteko nire gelatan bizi nintzen, baina hitzartutako ordua baino lehen iritsi nintzen Baker Streetera. Ordu erdi puntuan, Sir James Damery koronela iragarri zuten. Ez dago hura deskribatzeko beharrik, askok gogoratuko baitute gizon handi, zabal eta zintzo hura, aurpegi handi eta bizarrrik gabe hura, eta, batez ere, haren ahots gozo eta atsegina. Zintzotasuna zerion bere begi gris irlandarrei, eta umore ona ageri zen bere ezpain irribarretsu mugikorretan. Bere txapel luze distiratsutik hasi eta zapata bernizatuen gaineko polaina moreetaraino, xehetasun bakoitzak erakusten zuen janzkeran zeukan ardura zorrotza. Aristokrata handi eta agintzaile hark erabat betetzen zuen gela txikia.

"Jakina, prest nentorren Watson doktorea ere hemen aurkitzeko", esan zuen adeitasunez burua makurtuz. "Bere laguntza oso beharrezkoa izan daiteke; izan ere, oraingoan, Holmes jauna, indarkeria ohikoa duen gizon baten aurrean gaude, eta hitzez hitz, ez da ezeren aurrean geldituko. Nik esango nuke ez dagoela Europan hura baino gizon arriskutsuagorik".

"Termino lausengarri hori jaso duten aurkari batzuk izan ditut nik ere", esan zuen Holmesek irribarrez. "Ez duzu erretzen? Orduan barkatuko didazu pipa piztea. Zure gizona Moriarty irakasle zena baino edo Sebastian Moran koronel bizi dena baino arriskutsuagoa bada, benetan merezi du ezagutzea. Esango didazu nola deitzen den?"

"Entzun al duzu inoiz Gruner baroiarena?"

"Austriar hiltzailea esan nahi duzu?"

Damery koronelak larruzko eskularrudun eskuak jaso zituen algara batekin. "Zuregandik ez dago ezer ezkutatzerik, Holmes jauna. Harrigarria! Beraz, hiltzailatzat zenuen jadanik?"

"Nire lana da kontinente osoko krimenak jarraitzea. Nork irakur zezakeen Pragan gertatutakoa eta gizon haren erruari buruzko zalantzarik izan? Legearen puntu tekniko huts batek eta lekuko baten heriotza susmagarriak salbatu zuten. Splugenek mendatean ustezko istripua gertatu zenean emaztea berak hil zuela ikusi izan banu bezain ziur nago. Banekien, gainera, Ingalaterrara etorria zela, eta sentipen bat nuen lehenago edo geroago zerbait ekarriko zidala. Tira, zertan dabil orain Gruner baroia? Ez ote da tragedia zahar bera berriro agertu?"

"Ez, hori baino larriagoa da. Krimena mendekatzea garrantzitsua da; baina are garrantzitsuagoa da hura galaraztea. Gauza izugarria da, Holmes jauna, gertaera ikaragarri bat, egoera ankerragoa ezin dena,

zure begien aurrean prestatzen ikustea, argi jakitea nora eramango duen, eta hala ere hura saihesteko erabat ezgai izatea. Jar al daiteke gizakia egoera estuago batean?"

"Seguruenik ez".

"Orduan ulertuko duzu ordezkatzan ari naizen bezeroarekiko nire kezka".

"Ez nuen ulertu zu bitartekari hutsa zinenik. Nor da benetako bezeroa?"

"Holmes jauna, galdera hori ez egiteko eskatzen dizut. Oso garrantzitsua da nik hari ziurtatu ahal izatea bere izen ohoragarria inola ere ez dela auzi honetan nahasi. Bere motiboak guztiz ohoragarriak eta zaldunezkoak dira, baina ezezaguna izatea nahiago du. Ez dut esan beharrik zure ordainsaria bermatuta egongo dela eta esku guztiz askea izango duzula. Benetan hain garrantzitsua al da bezeroaren izena?"

"Sentitzen dut", esan zuen Holmesek. "Ohituta nago nire kasuetan mutur batean misterioa egotera; baina bi muturretan izatea gehiegizkoa da. Beldur naiz, Sir James, ezingo dudala auzia hartu".

Gure bisitaria oso asaldatuta geratu zen. Bere aurpegi handi eta sentikorrari emozioak eta etsipenak ilundu zioten adierazpena.

"Ez duzu zeure erabakiaren ondorioa ondo neurtu, Holmes jauna", esan zuen. "Egoera larrienean uzten nauzu; guztiz ziur nago, datuak emango banizkizu, harro hartuko zenukeela kasua, baina promesa batek den-dena esatea debekatzen dit. Utziko al didazu, behintzat, esan dezakedan guztia azaltzen?"

"Jakina, baldin eta ezer onartzera ez nautela lotzen ulertzen bada".

"Hori argi dago. Lehenik eta behin, entzun duzu, noski, De Merville jeneralarena?"

"Khyberko ospea duen De Merville? Bai, entzuna nuen".

"Alaba bat dauka: Violet de Merville. Gaztea, aberatsa, ederra, hezia; hitz batean, emakume aparta alde guztietatik. Alaba hori, neska eder eta errugabe hori, deabru baten atzaparretatik salbatzen saiatzen ari gara".

"Beraz, Gruner baroiak nolabaiteko menpea du haren gainean?"

"Emakume baten kasuan sendoena den menpea: maitasunarena. Tipo hori, entzuna izango duzunez, oso gizon ederra da, modu liluragarrikoa, ahots leunekoa, eta emakumeei hainbeste eragiten dien erromantizismo eta misterio aire hori dauka. Esaten da emakume guztiak bere esku dituela eta hori sobera ondo baliatu duela".

"Baina nola ezagutu zuen gizon horrek Violet de Merville andereñoaren mailako emakume bat?"

"Mediterraneoan egindako belaontzi-bidaia batean izan zen. Bidaiari guztiak hautatuak baziren ere, bakoitzak bere pasarte ordaintzen zuen. Antolatzaileek ez zuten baroiaren benetako izaera beranduegi izan arte sumatuko. Gaizkile hura neskarengana itsatsi zitzaion, eta hainbesteko eraginez, haren bihotza erabat irabazi zuen. Maitatzen duela esatea motz geratzen da. Zoramenez maite du; itsututa dago. Munduan ez dago berarengandik kanpo deusik. Ez du haren aurkako hitz bakar bat ere entzun nahi. Erotasun horretatik ateratzeko dena egin da, alferrik ordea. Laburbilduz: datorren hilean harekin ezkondu nahi du. Adinez nagusia da eta burdinazko borondatea dauka; ez dakigu nola galarazi".

"Badaki austriar kontu haren berri?"

"Deabru maltzur horrek bere iraganeko eskandalu publiko lotsagarri guztiak kontatu dizkio, baina beti bere burua errugabe eta martiri gisa aurkezteko moduan. Neskak erabat sinesten dio, eta ez du beste bertsiorik entzun nahi".

"Aizu! Baina, nahi gabe bada ere, zure bezeroaren izena ihes egin zaizu. De Merville jenerala izango da, zalantzarik gabe".

Gure bisitaria aulkian urduri mugitu zen.

"Gezurra esanez engaina zintzaket, Holmes jauna, baina ez litzateke egia izango. De Merville gizon hautsia da. Gertakari honek soldadu sendo hura erabat zapuztu du. Gudu-zelaian inoiz huts egiten ez zion adorea galdu du, eta agure ahul eta nahasi bihurtu da, Austriako gaizkile distiratsu eta indartsu horri aurre egiteko guztiz ezgaia. Nire bezeroa, ordea, haren adiskide zaharra da; urte askoan jenerala oso gertu ezagutu du, eta neska honengan aita- seme arteko moduko interesa izan du txikitatik. Ezin du tragedia hau gauza dadin ikusi hura gelditzeko saiakerarik egin gabe. Scotland Yardek ezin du ezer egin. Haren iradokizuna izan zen zuregana jotzea, baina baldintza argi batekin: ez zela pertsonalki auzian agertuko. Ez dut zalantzarik, Holmes jauna, zure ahalmen handiekin ni jarraituz bezeroa aurkitzeko gai izango zinela; baina ohore kontuagatik, ez egiteko eskatzen dizut, eta haren ezkututasuna errespetatzeko".

Holmesek irribarre bitxi bat egin zuen.

"Uste dut lasai asko agin dezakedala", esan zuen. "Esan dezaket, gainera, zure arazoak interesa piztu didala, eta aztertzeko prest nagoela. Nola jarri naiteke zurekin harremanetan?"

"Carlton Cluben aurkituko naute. Premiazkoa balitz, telefono pribatu bat ere badut: XX.31".

Holmesek koadernoan idatzi zuen, belaun gainean irekita zeukan memoriadun koadernoaren gainean irribarrea galdu gabe.

"Baroiaren egungo helbidea?"

"Vernon Lodge, Kingston inguruan. Etxe handia da. Espekulazio ilun samarren bidez ondo ibili da eta gizon aberatsa da; horrek, jakina, aurkari are arriskutsuago bihurtzen du".

"Etxean al dago orain?"

"Bai".

"Esan didazunaz gain, eman al diezadakezu gizon horri buruz beste daturik?"

"Gustu garestiak ditu. Zaldizalea da. Denboraldi batez Hurlinghamen poloan aritu zen, baina Pragako auziaren berri zabaldu zenean alde egin behar izan zuen. Liburuak eta koadroak biltzen ditu. Bere izaeran alde artistiko nabarmena dauka. Uste dut Txinako zeramikaren gaineko aditu aitortua dela, eta gai horri buruzko liburu bat ere idatzi du".

"Buru konplexua", esan zuen Holmesek. "Gaizkile handi guztiek dute halako zerbait. Charlie Peace nire lagun zaharra biolin-jotzaile aparta zen. Wainwright ez zen artista makala. Beste asko ere aipa nitzake. Tira, Sir James, esan zure bezeroari Gruner baroiaz arduratzen hasi naizela. Oraingo ezin dut gehiago esan. Nire iturriak baditut, eta ziurrenik auzia nondik zabaldu aurkituko dugu".

Bisitaria joan ondoren, Holmes hain luzaro egon zen gogoeta sakonean, non ni bertan nengoela ere ahaztu zuela iruditu baitzitaidan. Azkenean, ordea, bat-batean itzuli zen errealitatera.

"Tira, Watson, zer iruditzen zaizu?" galdetu zidan.

"Nik uste neska bera ikusi beharko zenukeela".

"Watson maitea, bere aita gizajo hautsiak mugitzen ez badu, nola lortuko dut nik, ezezagun hutsa izanik? Hala ere, zure iradokizunean zerbait badago, beste guztia huts eginez gero. Baina uste dut beste aldetik hasi behar dugula. Nire ustez Shinwell Johnsonek lagundu ahal digu".

Ez dut Shinwell Johnson izena oraindik nire oroitzapen hauetan aipatzeko aukerarik izan, zeren eta kasu gutxi hartu baititut nire lagunaren ibilbidearen azken aldietatik. Mendearen lehen urteetan laguntzaile baliotsua bihurtu zen. Aitortu behar dut Johnson izena lehenik gaizkile arriskutsu gisa egin zuela, eta Parkhursten bi zigorraldi bete zituela. Azkenean damutu egin zen, eta Holmesen alde jarri zen; Londresko azpimundu kriminal erraldoian bere agente gisa jarduten zuen, eta askotan ezinbestekoak izaten ziren datuak lortzen zituen. Johnson poliziaren salaria izan balitz, berehala agerian geratuko zen; baina auzitegiatarazuzenean iristen ez ziren kasuetan aritzen zenez, bere lagunek ez zuten sekula susmatu. Bi kondenen ospeak ia edozein gaueko klub, aterpe edo joko-etxetan sartzeko atea irekitzen zizkion, eta behaketa bizkorrak eta buru azkarrak informazioa lortzeko agente ezin hobea bihurtzen zuten. Hari jo nahi zion orain Sherlock Holmesek.

Ez zitzaidan posible izan nire lagunak berehala eman zituen pausoak jarraitzea, nire lanbidearekin loturiko premiazko auzi batzuk baintuen; baina arratsalde hartan bertan elkartu ginen Simpson'sen, Strandera ematen duen aurrealdeko leiho ondoko mahai txiki batean. Beheko jendetzaren joan-etorriari begira geundela, gertatutakoaz zerbait kontatu zidan.

"Johnson usainean dabil", esan zuen. "Agian azpimunduko bazter ilunenetan hondarren bat topatuko du; izan ere, krimenaren sustrai beltz horien artean bilatu behar ditugu gizon honen sekretuak".

"Baina andreak jadanik dakiena onartu nahi ez badu, zergatik aldaraziko lioke zure aurkikuntza berriren batek?"

"Nork daki, Watson? Emakumearen bihotza eta gogoa enigma konponezinak dira gizonarentzat. Baliteke hilketa barkatzea edo azaltzea, eta hala ere hutsegite txikiago batek min handiagoa egitea. Gruner baroiak berak esan zidan..."

"Berak esan zizun!"

"A, bai, egia, ez nizun nire plana azaldu. Nik gustuko dut aurkaria aurrez aurre ezagutzea, Watson. Begiz begi ikusi, eta zer materialez eginda dagoen neuk neure kabuz neurtzea. Johnsoni bere egitekoak eman ondoren, Kingstonera jo nuen taxi batean eta baroia umore ezin adeitsuagoan aurkitu nuen".

"Ezagutu zintuen?"

"Horretarako zailtasunik ez zen izan; nire txartela bidali nuen besterik gabe. Aurkari bikaina da: izotza bezain hotza, ahots leun eta baretzailea du, modako mediku ospetsu horietako baten modukoa, eta kobra bat bezain pozoitsua. Jatorri onekoa da, benetako krimen-arloko aristokrata; kanpotik arratsaldeko te gozo baten itxura ematen du, baina haren atzean hilobiaren gogortasuna dago. Bai, pozten naiz Adelbert Gruner baroiaren gainean arreta jarri izana".

"Esan duzu adeitsua zela?"

"Sagu berria ikusten duen katu marranta bezalakoa. Batzuen adeitasuna beste batzuen indarkeria baino hilgarriagoa izaten da. Haren agurra bera adierazgarria izan zen. 'Lehenago edo geroago etorriko zinela uste nuen, Holmes jauna', esan zidan. 'Ziur aski De Merville jeneralak kontratatu zaitu bere alabarekin, Violetekin, dudan ezkontza geldiarazteko. Hori da, ezta?'

"Baiezkoa eman nion.

"'Ene lagun maitea', esan zuen, 'zure merezitako ospea zeure buruak hondatuko du. Ez da irabaz dezakezun kasuetakoa. Alferrikakoa izango da zure lana, eta arriskua ere ekarriko dizu. Benetan aholkatzen dizut berehala alde batera uzteko.'

"'Bitxia da', erantzun nion, 'nik zuri berari eman nahi nizun aholkua bera delako. Zure burua errespetatzen dut, baroi jauna, eta orain arte ikusi dizudan apurrak ez dit iritzia apaldu. Gizon artean bezala hitz egin diezazuket. Inork ez du zure iragana nahasi nahi ezta deserosoegi jarri ere. Hori igaroa da, eta orain ur bareetan zaude; baina ezkontza honetan tematzen bazara, etsai boteretsu asko altxatuko dituzu, eta ez dizute bakerik emango Ingalaterra zuretzat jasanezina egin arte. Merezi al du jokoak? Jakintsuagoa izango zinateke andrea bakean utziko bazenu. Ez litzaizuke atsegina izango bere aurrean zure iraganeko kontu hauek azaltzea.'

"Baroiak mutur azpian ile-izar txiki batzuk zeramatzan, intsektu baten antena motzak bezala. Dardara txiki batekin mugitu zitzaizkion, eta, azkenean, irribarre goxo batez egin zuen barre.

"'Barka nire barrea, Holmes jauna', esan zuen, 'baina benetan dibertigarria da zu kartarik gabe jokatzeko saiatzen ikustea. Inork ez luke zuk baino hobeto egingo, baina hala ere samingarri samarra da. Ez daukazu karta on bakar bat ere, Holmes jauna; txikienetan txikiena da.'

"'Hori uste duzu, beraz'.

"'Ez, hori badakit. Utz iezadazu argi azaltzen; nire jokaldia hain da sendoa, non erakusteko moduan bainago. Zortea izan dut andre horren maitasun osoa irabazteko. Eta hori, gainera, nire iraganeko pasadizo desatsegin guztiak argi eta garbi kontatu nizkiolako gertatu da. Esan nion baita ere pertsona

gaizto eta maltzur batzuk —ea zeure burua ezagutzen duzun hor— etorriko zitzaizkiola istorio horiekin, eta nola hartu behar zituen erakutsi nion. Entzun al duzu inoiz hipnosi osteko iradokizunaz, Holmes jauna? Ikusiko duzu nola funtzionatzen duen; nortasun handiko gizon batek ez du keinu arranditsurik behar hipnosia egiteko. Hala, ba, prestatuta dago zuretzat, eta hitzordua ere emango lizuke, ziur aski, bere aitaren borondatea ia gauza guztietan betetzen baitu... gai txiki batean izan ezik.'

"Bueno, Watson, ez zegoen gehiagorik esateko, eta ahal nuen duintasun hotzenarekin alde egiteko prestatu nintzen. Baina ateko eskulekua ukitzear nengoela, gelditu egin ninduen.

"'Bide batez, Holmes jauna', esan zuen, 'ezagutu al zenuen Le Brun, frantses agentea?'

"'Bai', erantzun nion.

"'Eta badakizu zer gertatu zitzaion?'

"'Montmartre aldean apatxe batzuek jipoitu zutela eta bizitza osorako elbarri geratu zela entzun nuen.'

"'Hori da, Holmes jauna. Kasualitate bitxia: handik astebetera nire kontuetan ari zen miatzen. Ez egin hori, Holmes jauna; ez da zorte oneko lana. Batzuk konturatu dira dagoeneko. Azken hitza: zuk zure bidea hartu eta niri neurea utzi. Agur!'

"'Hortxe daukazu, Watson. Orain egunean zaude'".

"'Tipo arriskutsua ematen du'".

"'Oso arriskutsua. Harroputz hutsak ez dit kezkatzen; baina honek esan nahi duena baino gutxiago esaten du'".

"'Sartu beharra al dago? Benetan hain garrantzitsua al da neskarekin ezkontzea?'

"'Azken emaztea hil zuela dudarik gabe uste badugu, nik esango nuke baietz, eta asko gainera. Eta bezeroa! Tira, hori alde batera utz dezagun. Kafea bukatutakoan, etxera etortzea hobe, Shinwell alaia han izango baita bere txostenarekin'".

Eta han aurkitu genuen, bai horixe: gizon ikaragarri handia, zakarra, aurpegi gorrixka eta azal gaixoarekin, baina begi beltz bizi pare batekin; haiek baino ez zuten agerian uzten barruan zeraman adimen maltzurra. Badirudi bere erreinuan bertan murgilduta ibili zela, eta sofaren ondoan ekarri zuen

harrapakin moduko bat zeukan: emakume gazte argal eta suhar bat, aurpegi zuri eta sutsuarekin; gaztea bai, baina bekatuak eta saminak hain urratua, ezen urte latzen marka itsusia nabari baitzitzaion.

"Hau Kitty Winter andereñoa da", esan zuen Shinwell Johnsonek, esku lodia aurkezpen gisa astinduz.

"Berak ez dakiena... bueno, berak kontatuko du. Zure mezua jaso eta ordubetera topatu dut, Holmes jauna".

"Erraz aurkitzen naute ni", esan zuen emakume gazteak.

"Infernua, Londres bera, topatzen nau beti. Porky Shinwellen helbide bera. Lagun zaharrak gara, Porky, zu eta biok. Baina, arraio, baldin eta munduan justiziarik balego, bada gu baino infernu sakonago batean egon beharko lukeen beste bat! Hori da zuek atzetik duzuen gizona, Holmes jauna".

Holmesek irribarre egin zuen. "Beraz, gure alde zaude, Winter andereñoa".

"Bere tokian bukatzen lagun badezaket, zeuenarekin nago azken muturreraino", esan zuen bisitariak sutzuki. Gorrotorik bizi-biziena ikusten zitzaion aurpegi zuri gogortu hartan eta begi sutan; halakorik emakumeak gutxitan eta gizonek inoiz ez dute iristen. "Ez duzu nire iraganaz arduratu behar, Holmes jauna. Hori ez da kontua. Baina gaur naizena Adelbert Grunerrek egin nauelako naiz. Behera botako banu!" Eskuak airean, erotuta bezala, luzatu zituen. "Ai, ahal banu hainbeste lagun bultzatu duen zulo berera eraitsi!"

"Badakizu nola dagoen auzia?"

"Porky Shinwellek esan dit. Beste ergel gaixo baten atzetik dabil eta oraingoan harekin ezkondu nahi du. Zuek hori galarazi nahi duzue. Bada, deabru honi buruz nahikoa badakizue edozein neska zentzudunek harekin eliza berean ere egon nahi ez izateko".

"Ez dago zentzuz", esan zuen Holmesek. "Erotuta dago maitasunez. Dena esan diote, eta berdin zaio".

"Hilketa ere bai?"

"Bai".

"Jauna! Orduan bai ausarta dela!"

"Guztia kalumnia dela dio".

"Eta ezin zaizkio frogak begi aurrean jarri?"

"Lagunduko al diguzu horretan?"

"Ni neu ez al naiz froga? Haren aurrean jarriko banintz eta nola erabili ninduen kontatuko banio..."

"Egingo al zenuke?"

"Egingo nukeela? Bai noski!"

"Baliteke probatzea merezi izatea. Baina bere bekatu gehienak kontatu omen dizkio, eta barkatu egin dizkio; ez dirudi gai hori berriro irekiko duenik".

"Nik apostu egingo nuke ez dizkiola denak kontatu", esan zuen Miss Winterrek. "Hilketa bat edo bi gehiago ere antzeman nizkion, famatu egin zen hura ez ezik. Norbaiti buruz bere ahots leunean hitz egingo zidan, eta gero begirada finkoarekin esango: 'Hilabete baino lehen hil zen'. Eta ez zen ahoz gora esandako hutsala. Garai hartan nik neuk ere maite nuen, ikusten? Berak egiten zuen guztia ondo iruditzen zitzaidan, neska ergela honi bezala. Gauza bakar batek astindu ninduen. Bai, arraio, bere mihi pozoitsu eta gezurtia ez balitz, dena azaltzen eta lasaitzen zuena, gau hartan bertan utziko nuen. Liburu bat dauka: larru marroikoa, giltzarrapoduna, eta kanpoaldean armak urrez. Uste dut gau hartan pixka bat mozkortuta zegoela, bestela ez baitzidan erakutsiko".

"Zer zen, bada?"

"Esango dizut, Holmes jauna: gizon honek emakumeak biltzen ditu, eta bilduma horretaz harro dago, beste batzuek sitsak edo tximeletak biltzen dituzten bezala. Hor zegoen dena liburuan: argazkiak, izenak, xehetasunak, dena. Liburu higuigarria zen; kale-zulotik etorritako gizonik lotsagabeenak ere ez luke halakorik osatuko. Baina Adelbert Grunerren liburua zen, eta kito. 'Suntsitu ditudan arimak' jar zezakeen azalean. Dena den, hori ez zaizue askorako baliatuko, eta balio balu ere, ezingo duzue eskuratu".

"Non dago?"

"Nola jakingo dut orain non duen? Urtebete baino gehiago da alde egin nuela. Orduan non gordetzen zuen badakit. Gizon zorrotza eta txukuna da hainbat gauzatan; beraz, agian oraindik barneko estudioan duen idazmahai zaharreko paperontzian egongo da. Ezagutzen al duzu etxea?"

"Ikasgela ikusi dut", esan zuen Holmesek.

"Bai? Ez zara motel ibili, goiz honetan bertan hasi bazara. Baliteke oraingoan Adelbert maiteak parekoa topatu izana. Kanpoko estudioa da Txinako zeramika dagoena, leihoen artean beirazko armairu handia duena. Eta haren idazmahaiaren atzean barneko gelara doan atea dago; paperak eta halakoak gordetzen dituen gela txikia".

"Ez al du lapurren beldurrik?"

"Adelbert ez da koldarra. Etsairik handienak ere ezingo luke hori esan. Bere burua zaintzen daki. Gauetz lapurretaren aurkako alarma dago. Gainera, zer eramango luke lapur batek? Zeramika dotore hori izan ezik..."

"Ez du irteerarik", esan zuen Shinwell Johnsonek adituaren tonu irmoz. "Inork ez du horrelako gauzarik erosi nahi; ez da urtzen ezta erraz saltzen ere".

"Hori da", esan zuen Holmesek. "Bada, Winter andereñoa, bihar arratsaldeko bostetan hemen etorriko bazina, bitartean pentsatuko nuke zure iradokizuna —andrea zuzenean ikustearena— antola daitekeen ala ez. Benetan eskertzen dizut laguntza. Ez dut esan beharrik nire bezeroek eskuzabal jokatuko dutela..."

"Ez horrelakorik, Holmes jauna", egin zuen oihu emakume gazteak. "Ez nabil diru bila. Gizon hori lokatzetan ikustea, eta nik haren aurpegi madarikatuaren gainean oina jartzea: hori da nahi dudana guztia. Hori da nire ordaina. Biharko prest nago, edo beste edozein egunerako, betiere haren arrastoan bazabiltza. Porkyk badaki beti non aurkitu".

Hurrengo arratsaldera arte ez nuen Holmes berriro ikusi; berriro afaldu genuen gure Strandeko jatetxean. Sorbaldak jaso zituen neska gaztearekin izandako elkarriketak zer eman zion galdetu nionean. Eta gero, gertatutakoa kontatu zidan. Haren estilo lehor eta zuzena zertxobait leundu beharra dago benetako bizitzaren hitzetara ekartzeko.

"Ez zen inolako zailtasunik izan hitzordua lortzeko", esan zuen, "neskak aitarenganako obedientzia itsua erakutsi nahi izaten baitu bigarren mailako gauza guztietan, bere konpromisoarekin egin duen desobedientzia nabarmena nolabait konpentsatzeko. Jeneralak telefonoz deitu zuen dena prest zegoela esateko, eta W. andereño sutsu hura ere garaiz iritsi zen; beraz, bost eta erdietan taxi batek 104 Berkeley Square aurrean utzi gintuen, soldadu zaharra bizi den etxe grisetako batean, eliza bera ere arinagoa emango lukeen Londresko gotorleku hotz horietako batean. Oinpeko batek gortina horiz apaindutako egongela handi batera sartu gintuen, eta han zegoen andrea zain: apala, zurbila, bere buruaren jabe, mendi batean elurrez egindako irudi bat bezain urrun.

"Ez dakit nola deskribatu, Watson. Agian ezagutuko duzu geroago, eta orduan zure hitzak erabiliko dituzu. Ederra da, baina mundu honetatik aparteko edertasun horietakoa, pentsamendua gorenean duen fanatiko baten gisakoa. Antzeko aurpegiak ikusi izan ditut Erdi Aroko maisu zaharren koadroetan. Haraindiko izaki baten gainean pizti bat nola iritsi den hatz zikinak jartzera, hori ezin dut ulertu. Muturrek elkar erakartzen dutela ohartua izango zara: espirituala animaliarantz, kobazuloko gizona aingeruarengana. Inoiz ikusi dudak kasurik txarrena da hau.

"Noski, zertara gentozen bazekien; gaizkileak ez zuen denborarik galdu gure kontra pozoia hedatzen. Winter andereñoaren agerpenak harritu egin zuen apur bat, uste dut; baina gure aukietara keinuz bidali gintuen, abadesa serio batek bi eskale gaixotu hartuko balitu bezala. Burua puzteko joerarik baduzu, Watson maitea, Violet de Merville andereñoaren ikastaro txiki bat hartu beharko zenuke.

"'Bada, jauna', esan zuen izotz menditik datorren haizearen antzeko ahots batez, 'zure izena ezaguna zait. Ulertzen dudanez, nire senargai den Gruner baroiari kalte egitera etorri zara. Nire aitaren eskariagatik baino ez zaitut hartu, eta aurretik esaten dizut esango duzun ezerk ez duela nire iritzian eraginik izango'.

"Pena eman zidan, Watson. Une batez neure alabatzat hartuko banu bezala sentitu nuen. Ez naiz sarritan hitz berok jarduteko gai; burua erabiltzen dut, ez bihotza. Baina benetan, nire izaeran aurki nezakeen bero guztiaz mintzatu nintzaion. Ezkonduta egon arte gizonaren benetako izaera ikusten ez duen emakumearen egoera irudikatu nion; esku odoltsuz eta ezpain lizunez ukitua izan behar duen emakumearena. Ez nion ezer gorde: lotsa, beldurra, oinazea, etsipen guztia. Eta hala ere, nire hitz sutsoek ez zuten kolore tanta bat ere ekarri hare masail zurbil haietara, ezta emozio txikienik ere begi urrundu haietara. Grunerrek hipnosi osteko eraginaz esandakoa etorri zitzaidan burura. Benetan ematen zuen lurretik kanpo, amets estatiko batean bizi zela. Hala ere, bere erantzunak zehatzak izan ziren.

"'Pazientziaz entzun dizut, Holmes jauna', esan zuen. 'Nire gogoan izan duen eragina aurrez iragarritakoa bera da. Badakit Adelbertek, nire senargaiak, bizitza nahasia izan duela, eta horretan gorroto handiak eta bidegabeko salaketa asko jasan dituela. Zurea da nire aurrean halako kalumniak ekarri dituztenen azken ahotsa. Baliteke asmo onez etortzea, nahiz eta ikasi dudak ordaindutako agentea zarela eta baroiaren alde ere haren aurka bezain prest ariko zinatekeela. Nolanahi ere, argi izan ezazu behingoz: nik maite dut, eta hark ni; eta mundu osoaren iritzia ez zait leihotik kanpo txio egiten duten txorien zarata baino gehiago axola. Haren izaera nobleak inoiz huts egin badu, agian ni bidali naute berriro bere benetako maila garaiera eramateko. Ez dut oso argi' —hemen nire lagunari begiratu zion— 'nor den andereño hau'.

"Ni erantzutekotan nengoen, neska gazteak zurrumbilo baten antzera hitza hartu zuenean. Sua eta izotza aurrez aurre inoiz ikusi baditut, bi emakume haiek izan ziren.

